

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Airez beteriko hezurrak hegan egiteko

MESOZOIKO AROAN, lehen txoriak existitu baino 70 milioi urte lehenago, pterosauroak ziren zeruen jaun eta jabe.

Tamaina txantxangorriarena eta abioi txiki batenaren artekoa zuten; txikia izanik hegan egitea eta airean nahi adina denbora irautea ulergarria da, baina handi-handiek, nola eutsi airean hezurduraren pisuari?

AEBetako Ohioko Unibertsitateko eta beste hainbat erakundetako ikerlari talde batek hipotesia plazaratu du tamaina handiko hegaztiak airean iraun ahal izatea azaltzeko: arnasketa-sistema berezia. Zenbat eta hegazti handiagoak izan, euren arnasketa-sistema gero eta handiagoa zen, biriketarik harago hedatuz. Aire-zaku gisa deskribatu duten sistema hori bizkarrezurreraino hedatzen zen hegazti txikietan; handietan berriz, hegaletako hezur handien barnean topa daiteke.

Era horretara, pisua txikitzeaz gain, hegan egiteko esfortzuak behar duen gas-trukaketa (oxigenoa/karbono dioxidoa) askoz ere errazago egiten zuten.



Vietnamen gero eta neska gutxiago jaiotzen dira

JAKINA DA Txinan familiek mutilak hobesten dituztela nesken ondoan. Munduan hori da kasurik ezagunena, baina Frantziako Garapenerako Ikerketa-Institutuko (IRD) Christophe Guilmotok dioenez, Vietnamen 2005ean jaiotako 100 neskako 108 mutil jaiotzen baziren, 2006an 112 mutilera igo zen kopuru hori. Ikerlariaren ustez, mutilei ematen zaien lehentasuna areagotzen ari da gizartearen, eta horrekin batera handitu egin da neskak izango diren fetuen abortu portzentajea.

Munduko batez bestekoa da 100 neskako 105 mutil jaiotzea; Vietnamen, 2004 arte, 104 eta 109 artekoa izan da mutilen eta nesken jaiotzen arteko ratioa, baina azken urteotako joerak gizartearen interesa erakusten du argi eta garbi. Eta Txinan eta Vietnamen ez ezik, Indian ere, une honetan, arestian aipatutako ratioa 110 eta 120 artekoa da. Indartuz doa joera, beraz.

Aerosolak Artikoaren berokuntzaren errudun

Karbono dioxidoaren eragina atmosferaren berokuntzan eza-guna baldin bada ere, NASAko ikerlari talde baten arabera Artikoan azken 30 urteotan gertatutako berokuntzaren %45 aerosolen erantzukizuna da. Aerosolak naturalki zein gizakiaren eraginez isurtzen dira atmosferan, eta eguzkiko izpiak xurgatu eta egurratsa berotzen dute.

<http://ttiki.com/2997>

Hogei kilometroko pulsarraren eragina

PSR B1509-58 pulsarra 150 argi-urtera dago eta hogei kilometroko diametroa baino ez du, Chandra astronomia-behategian lortutako datuek diotenez. Pulsarra neutroizko izarra da; bertan, neutroiek oso azkar biratzen dute gunearen inguruan, Lurrekoa baino hamabost bilioi handiagoa den eremu magnetikoa sortuz.

<http://ttiki.com/2998>

Haizearen portaera aldatzen ari da, agidanaz

Lurraren orbitak jasandako aldaketa batek eragin zuen azken izotz-aroaren amaiera, zientzialari askoren ustez. Itxuraz, orbita aldaketak haizearen portaera ere aldatu zuen, eta horrek karbono dioxido transferentzia areagotu edo moteldu dezake. Une honetan haize-aldaketa bat gertatzen ari dela uste da, eta horren eraginez karbono dioxido transferentzia areagotzen ari dela.

<http://ttiki.com/3001>

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza 
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16